

Instagram sare sozialaren abantailak Publiexplorers

A TALDEA

Kaixo, explorers!!! Ongi etorri gure kanalera!

Aupa, explorers, zer moduz zaudete?

Gaur egun biztanleriaren gehiengoak erabiltzen du Instragrama, eta, ez badu erabiltzen, badaki zer den. Ez badakizue, ikusi gure beste bideoa. Baina, berez, ba al dakigu zer abantaila eta zer desabantaila eskaintzen dizkigun sare sozial honek? Jakin nahi izanez gero, geratu bideo hau ikusten.

Badakigu Instagramek abantaila pila bat eskaintzen dizkigula, baina nagusienetako bat bere erabilera masiboa da. Azken urteotan, erabiltzaile kopurua pila bat hazi da, eta urtez urte gehiago handitzen ari da; orduan, oso modu egokia da jendearengana erraz iristeko.

"Irudi batek 1000 hitzek baino gehiago balio du". Zeinek ez du inoiz entzun esaldi hori? Eta zer esaldik deskribatuko zuen hobeto Instagram honek baino. Azken finean, Instragrama nagusiki argazkiak partekatzeko plataforma da. Beraz, esaldi hau praktikan jartzeko oso aproposa da.

Beste abantailetakoa bat da pribatutasuna eta segurtasuna mantentzeko sare bat dela; eta beste bat, oso garrantzitsua denontzat, doakoa dela. Jendeari pila bat gustatzen zaio doakoa den zerbaite, eta hau horietako bat da.

Aurreko puntuarekin lotuta, irudiak hain eraginkorrak direnez, denda birtualetarako oso aukera aproposa da, ze gaur egun Instragrama merkantzia-tresna handia bihurtu da.

Beste abantailetakoa bat, eta gaur egun ia anbito guztietan beharrezkoa egiten zaiguna, partekatzeko aukera da. Azken finean, Instagramekin uneoro non gauden, zeinekin gauden, zer egiten ari garen partekatzeko aukera ematen digu, bai historien bidez, bai feeden bidez. Gainera, zuzenean sor ditzakegun edukiez gain, ere bai ahal ditugu memoriatik atera, bai argazkiak, bai bideoak, bai gif-ak, eta horrek aukera pila bat ematen ditu.

Eta, azkenik, sare honek partekatzeko aukera emateaz gain, komunikatzeko erraztasuna ematen digu, ze, multimendia artxiboak argitaratzeko aukeraz gain,

berehalako mezularitza-zerbitzua eskaintzen du aplikazio honek. Uste dut argi geratu direla Instagramek dauzkan abantailak, baina askok ez ditugu kontuan hartzen desabantailak, eta ez da ez dauzkalako.